

# KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2023ko iraila / 341. zenbakia

[www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)  

## GAZTELUAITZ

izenaren sustraiaren bila





Tontorra. Egitura nagusiak eta egindako katak. (Ortoargazkia I. García Aranbarri; Fig. AMV)

# Gazteluaitz gaztelua Nafarroako Antso Nagusiaren erregealdian (1004-1035) erabiltzen zela egiaztatu du Aranzadik

» **Antton Arrieta** historialariak gaztelu baten aztarnak aurkitu zituen **Gazteluaitz** gainean (Arantzazun) eta **Aranzadik** burutu duen azterketa arkeologikoari esker baieztatu da haren hipotesia. » Garai hartako hezurak, zeramikak, lan tresnak eta apaingarriak ere aurkitu dituzte.

✉ ANTOKA MARTÍNEZ VELASCO (Aranzadi Zientzia Elkarte)

Artiako gaztelua adierazia zen I. Zumaldek, "Historia de Oñate" lanean, jasotako Udal Agiritegiko XVI. mendeko bi aipuren bidez:

- ...entre las peñas de Arrigoyenaga e la peña del castillo de Artia (1556)
- ...son linderos por parte de Arrigoyenaga el camino que iba para el castillo de Artia por el cerro de Arriba (1585).

Hortik abiatuta, Antton Arrietak urteak eman ditu inguruneak arakatzen

eta horrek eraman zuen azkenean Gazteluaitzera eta hura identifikatzera Artiako gazteluarekin (Euskal Herriko gazteluak. Gipuzkoa: 105).



Gazteluaitz toponimoa (Gazteluko atxa izenez agertzen da ere) argia da berez, baina hala ere, datu gutxi ezagutzen ziren berari buruz eta horrek eskatzen zuen ikerketa sakonagoa. Bide horretatik abiatuta, 2023ko martxoan eta apirillean egin dugu jarduera arkeologiko bat bertan, Oñatiko boluntario batzuekin

eta Udalaren laguntza ekonomikoaz. Osotara, lau kata egin ditugu, baita ikus-miaketa eta drone bidezko dokumentazioa.

Lan horien ondorioz baieztatu ahal izan dugu bertan gaztelu bat egon zela. Tontorra egokitu eta okupatuta egon zen, eta gutxienez zabalza edo ordoki luze bat ere egin zuten haren azpian, biek haitzaren goialdean multzo bat osatuz. Eraikin horren garaiko zenbait zeramika topatu ditugu, baita gurutze batez dekoratutako jantzi-apaingarri txiki eta eder bat. Erdi Arokoarekin batera, historiaurre berantiarreko aztarnategia egon zela baieztatu dugu, baita Aro Berriko harrobi bat.

## KARBONO-14 BIDEZKO DATAZIOA

Zeramiken aurkikuntzekin batera, bereziki aipatzekoa da lortu dugula hezur puska bat erabiliz Karbono-14 bidezko datazio bat eskuratzea. Emaitza interesgarria izan da oso, Kristo ondoko 1038±28



Goian, ezkerrean, jantzi-apaingarria lurretik atera berria (2023/04/28 - Antton Arrieta). Goian, eskuman, Gazteluaitz tontorraren ikuspegi orokorra. Harrobia (Ortoargazkia, I. García Aranbarri; Fig. AMV). Ezkerrean, Gazteluaitzeko indusketan aurkitutako lan-tresna, kolpekaria (AMV).

urtea eman baitu, eta erabilitako lagina eroritako terrazako murraren azpian harrapatuta zegoenez, data horrek adierazten digu gazteluaren bazterte garaia. Hori kontuan hartuta, zalantzarik gabe esan daiteke Gazteluaitzko gaztelua, XVI. mendeko deiturari jarraituz Artia, Nafarroako Antso IIIa Gartzzeit edo Nagusiaren erregealdian (1004-1035) erabiltzen ari zela. Modu berean, data horrek laguntzen digu azaltzen zergatik beranduagoko kroniketan, salerosketetan, ondasun erroldetan, errege-erreginen dohaintzetan eta abarretan ez den agertzen.

Sorrerari buruz, berriz, jardueran ez dugu datu zehatzik lortu, baina seguruenik Goi Erdi Arotik zetorren, 1038 baino hainbat urte lehenagotik. Ildo beretik, azpimarratzekoa da "gaztelu" izena mantendu izana toponimoan gaur egunera arte, baita horrek leku-izen eratorriak sortu izana, esaterako, behealdeko "Gazteluko mendi-soroak", Gazteluaitz eta Arriona artean. Horiek guztiak aditzera ematen digute denbora luzean egon zela erabilgarri, eta egitura adierazgarriak izan zituela, nahikoak behintzat, behin gazteluaren bizitza agortuta, erreferentia izaten jarraitzeko.



***Gazteluaitzen aurkitutako hezur puska baten Karbono-14 bidezko datazioa egin dugu, eta emaitza interesgarria izan da oso: Kristo ondoko 1038 urtea (±28 urte) eman du***




***Funtzioari dagokionez, baliteke bailararen kontrolarekin lotuta egotea, handik bertatik, ibaian gora, inguruetako mendietako larreetarako bide zaharra baitago, adibidez, Urbiarako. Ganaduen transhumantziarekin eta baliabide naturalen kontrolarekin egon liteke erlazioan***

### GAZTELUAREN FUNTZIOA

Gazteluaren funtzioari dagokionez, kokapena eta tamaina izan daitezke adierazgarrienak. Tontor txikia da eta bere ingurune hurbilenean nabarmenduta dago, baina hala ere bailara baten hondoa dago eta tontor altuagoek mugatzen dute bere ikuseremua, beraz, zaila da jartzen erlazioan lurraldearen defentsarako sistema zabalago batekin, bai berriz bailararen kontrolarekin, handik bertatik, ibaian gora, inguruetako goi mendietako larreetarako bide zaharra baitago, adibidez, Urbiarako. Horrela, Gazteluaitz ganaduen transhumantziarekin eta baliabide naturalen kontrolarekin egon daiteke erlazioan.

Egindako miaketetan baieztatu dugu mendebaldeko magalean harrobi bat dagoela. Ustiapen-fronte zabala dauka eta seguruekin mendiaren atal esanguratsu baten desagerpenaren erantzulea da. Ezaugarri orokorrek erakusten dute artisa-ustiapena izan zela, zizelez eta mailuz egindakoa (makineria modernoa erabili gabe), gehienbat bideratuta egon zitekeena harlangaitzak lortzera, tokiko erabilpenetarako. Bereziki interesgarria da harrobi hori, besteak beste, laguntzen digulako azaltzen zergatik gaur egun gazteluak oso aztarna gutxi kontserbatzen duen.

Azkenik, aipatzekoa da topatu ditugula zenbait zeramika eskuz egindakoa, baita bestelako materialak ere, lan-tresna bat, kolpekari bat esate baterako. Ez genuen espero, eta horiek adierazten dute gaztelua eraiki baino lehen gizakia ibili zela goialde horietan, eta Gazteluaitz historiaurreko aztarnategi modura ere sailkatu behar dugu. ■



# Barne antolaketa erabakita

**Emakumion Etxiak** izango dituen hiru solairuetako espazioak nola antolatuko diren adostu da parte hartze prozesu baten ostean  
**BARNE ANTOLAKETA IREKIA ETA MALGUA IZANGO DU**

Oraindik aurreproiektua da, eta obrak aurrera egin ahala aldaketaren bat egon badaiteke ere, definituta geratu da Emakumion Etxiak izango duen barne antolaketa. Helburu horrekin antolatu ziren hiru lan saioetan, Emakumion etxerako aurreikusten diren balizko jarduerak kontuan hartuz, herritarrek, udaleko ordezkari politiko eta teknikoekin batera diseinatu dute eraikinak izango dituen hiru solairuetako espazioen antolaketa, Juntura arkitekto taldearen laguntzarekin.

Ondoko orrian azaltzen da solairu bakoitzerako proposatzen den espazioen antolaketa, baina, oro har, esan daiteke barne antolaketa irekia eta malgua proposatzen dela. Hau da, ez dago espazio bakoitza jarduera bakar bati lotuta; alderantziz, altzari, gortina eta bestelako baliabide malguen bidez, espazio bakoitzean jarduera ezberdinak garatu ahal izango dira. Gainera, gunee batzuk oraingoz irekiak utziko dira, etorkizunean sor litezkeen beharren arabera moldatzeko aukera egon dadin.

## HURRENGO URRATSAK

Barne antolaketa finkatu ostean, Emakumion Etxea nola



Emakumion Etxiak izango duen barne antolaketa azaltzeko saioeko une bat




Emakumion Etxia izango den eraikina egonkortzeko lanek aurrera darraite

antolatuko den, zein baliabide eta zerbitzu eskainiko dituen, eta nola funtzionatuko duen erabaki behar da orain, besteak beste. Horixe izango da hurrengo hilabeteetarako eginkizuna, eta, orain arte bezala, hainbat saio ireki antolatuko dira, gai horien inguruko gogoeta egin eta erabakiak ahalik eta adostasun maila handienarekin hartu ahal izateko. Azken batean, udala eta herriko eragile eta norbanakoen arteko lankidetzatik eraikitako espazioa sortzea da helburua, herriko emakume guztiei irekia. Ildo horretan, udaleko Berdintasun saila ahalegin berezia egiten ari da, arrazoi ezberdinengatik parte hartze prozesuan parte hartzerik ez duten emakume taldeengana iristeko, informazioa helarazteko eta beraien proposamenak jasotzeko.

Bien bitartean, aurrera jarraitzen du Emakumion Etxia izango den eraikina egonkortzeko lanak (teilatua, ormak, eskailera eta igogailua). Gogoratu, udalak Kale Zaharreko 13 zenbakia erosi zuela iaz 289.500 eurotan, bertan Emakumion Etxia egokitzeko. Lehen fase honetako lanak Ugarte Eraikuntza enpresak egiten ari da 745.256 eurotan.

(6. orrian jarraitzen du)




## Behe solairuko oinplanta

Emakumeen Etxeak Kale Zaharra aldetik izango du sarrera nagusia, erreferentziazkoena, publikoena. Eraikin barruan harrera gunea (48m<sup>2</sup>) egongo da, jendea biltzeko eta topatzeko lekua, eta barnera sartzeko gonbidatuko duena. Solairuaren erdi aldean harrera bulegoa (dinamizatzailaren lantokia) eta honen aldamenean egongela itxurako espazio eroso eta atsegin bat, lehen arreta eskaintzeko. Aita Madina kale alderako espazioan erabilera anitzeko gunea egongo da, grada erako altzariekin. Gune honetan sukaldea ere egongo da. Aita Madina kaleko sarrera mantendu egingo da (agian tinbre bidez erabili ahal izateko) eta kantaletik dagoen ate bat ere bai, momentu puntaletan erabili ahal izateko. Komunak eta biltegia ere egongo dira behe solairuan.



## 1. solairuko oinplanta

Kale Zaharra aldera balio anitzeko gela handia (67m<sup>2</sup>) egongo da, hitzaldiak, proiektioak eta bestelako emanaldiak egiteko modukoa. Gela honetako zati batek teiltaturainoko altuera izango du, argi naturala baliatzeko. Tarteko espazioa oraingoz irekia utziko da, banaketa barik, aurrerago sor daitezkeen beharren arabera moldatzeko aukera egon dadin. Komuna egongo da bertan. Aita Madina kale aldera bi bulego eta itxaron gela egokituko dira. Baita biltegi bat ere.



## 2. solairuko oinplanta

Estalkipeko erdiko espazio nagusian sormen gunea egokituko da, pintura, zeramika, joskintza edo teknologia berrien inguruko sorkuntza lana burutzeko. Komuna, biltegia eta tresnak garbitzeko txoko bat ere egongo da bertan. Aita Madina kale aldera balio anitzeko gela txikia (43m<sup>2</sup>) egongo da, bilera gela bezala erabili ahal izango dena, eta azkenik, estalkipeak behera egiten duen gunean instalazio gela, klimatizazio edo aireztapeneko aparatuak jartzeko lekua.

# Emakumeen Etxearen antolaketa, kudeaketa eta erabilera zehaztuko da urritik aurrera, parte hartze prozesuari jarraipena emanez

» Hiru bloketan egingo da lanaketa. » Udalak ahalegin berezia egingo du orain arte falta izan diren ahotsak erakartzeko. » Udalaren eta herritarren arteko dialogoan eta kontsentsuan oinarrituko da prozesua, orain arte bezala

Herriko jaien ondoren, urriarekin batera hasiko da ikasturte berria Emakumeen Etxearen eraketa prozesuari dagokionean. Etxeak izango duen barne banaketa adostu da eta, orain, antolaketa, erabilera eta kudeaketa ereduaren inguruko erabakiak hartu beharko dira. Horretarako, parte hartze prozesuari jarraipena emango zaio, hiru bloketan banatuta:

**1. Blokea:** EGITASMOAREN DEFINIZIOA ZEHAZTEA. Zer izan nahi du emakumeen etxeak? Oinarri teorikoak adostu dira dagoeneko; baina zein balio eta zein estrategiar erantzungo dio egitasmoak? Zein da Oñatin egingo duen ekarpena?

**2. Blokea:** ETXEAREN ERABILERA ETA DINAMIKA ZEHAZTEA. Zein jarduera eta zerbitzu jasoko ditu? Zer egingo da emakumeen etxean? Zein inplikazio ditu horrek antolaketa, ordutegi eta baliabideei begira?

**3. Blokea:** GOBERNANTZA, KUDEAKETA ETA BALIABIDEAK. Nola antolatuko da emakumeen Etxea? Non eta nola hartuko dira erabakiak? Zein bestelako kudeaketa edo antolaketa organo izango ditu?

Hurrengo saioen eta urratsen diseinua lantzen ari da udala —iraila amaiera aldera jakinaraziko dira data zehatzak—, baina garbi dagoena da, orain arteko dinamikari eutsi nahi diola udalak, herritarrekiko eta eragile ezberdinekiko elkarrizketa indartuz eta kontsentsua edo adostasuna bilatuz. Ildo horretan, udalak ahalegin berezia egingo du, Emakumeen Etxearen eraketa prozesuan orain arte falta izan diren ahotsak erakartzeko, eta egitasmoaren inguruko komunikazioa hobetzeko.



Irailaren amaieran jakinaraziko ditu udalak hurrengo lan-saioetarako dataak.

## GEHIAGO JAKIN NAHI BADUZU

Emakumeen Etxearen eraketa prozesuari buruzko informazio guztia <https://labur.eus/EmakumionEtxia> atarian eskura dezakezu. (QR kodeak bertara emango zaitu). Bertan ikus daitezke orain arteko faseetan hartu diren erabakien inguruko edukiak.



### WHATSAPPEZ EDO EMAILEZ

Prozesuari buruzko informazioa whatsapppe zaso nahi izanez gero, gorde **688621213** zenbakia telefonoan, eta bidali mezu bat, altan eman nahia adieraziz. Edo, bestela, bidali mezu bat [berdintasuna@onati.eus](mailto:berdintasuna@onati.eus) helbidera.



**Catalana Occidente**

**Mikel Egaña Urrutia**  
Aseguruak

**Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:**

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea  
638 16 79 84  
[mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com](mailto:mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com)



**PINTURAS**  
**URBIA**  
**MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



## ERASO SEXISTEN ARRETARAKO TELEFONOA

Irailean ospatuko ditugun jaietako berriz, eraso sexistaren arretarako eta informaziorako telefono zerbitzua jarriko du martxan udalak.

Hala, datorren asteburuan Atzeko Kaleko jaiak ospatuko ditugula kontuan hartuz, zerbitzua martxan egongo da irailaren 8an eta 9an, gaueko 22:00etatik goizeko 8etara. Beraz, eraso sexistaren bat jasaten baduzu, informazioa edo aholkularitza behar baduzu, nola lagundu ez badakizu, edo eraso baten berri eman nahi baduzu, deitu edo idatzi 688 602 089 zenbakira.


**Eraso sexistaren aurrean deitu edo idatzi  
688 602 089**

# Emakumeen Jabetze Eskola

2023ko udazkenerako egitaraua prest dauka Udalak. Zortzi ikastaro-tailer antolatu dira, tartean gizontasunaren inguruko tailer eta hitzaldi bana

Udaleko Berdintasun sailak prest du 2023ko udazken-neguko Jabetze Eskolako egitaraua. Irailaren 11tik aurrera banatuko da etxe guztietara, baina aurreratzeko moduan gaude zortzi ikastaro-tailer eskainiko direla, beste hainbat hitzaldi eta mahai-ingururekin batera.

Urtero bezala, emakumei hausnarketarako eta formaziorako topagune bat eskaintzea da Jabetze Eskolaren helburua. Emakumeen eskubideez jabetu eta beraien kezkak eta ondorez partekatze konfiantzazko elkargune bat. Azken batean, emakumeen jabetze edo ahalduzko prozesuan eragitea da helburua, maila guztietan. Herriko emakume guztiei zuzenduta dago. Animatu eta eman izena, irailaren 30a baino lehen.



## TAILER-IKASTAROAK

2023ko udazkena

- Yoga emakumeentzat
- Emakumeak mugimenduan
- Irakurle talde feminista
- Autodefentsa feminista
- Elkarrekin, bizitzaren korapiloak askatzen: Makrame
- Argi eta soinu teknikaritzaren hastapena
- Erresistentzia Romani-a
- Gizonak feminismoarentz. Aitatasun arduratsua: despatriarkalizazioa eta erantzukidetasuna

### HITZALDIK

- Mahai-ingurua: 'Kirola, indarkeria eta gizontasuna'
- Hitzaldi zikloa: 'Denon bizitzak erdigunera'

## 'Denon bizitzak erdigunera'

HITZALDI ZIKLOA

Aldizkariaren erredakzioa ixteko unean datak guztiz zehaztu barik zeuden arren, aurreratzeko moduan gaude, Jabetze Eskolaren baitan zaintzen inguruko hitzaldi ziklo bat egongo dela urria eta azaroan zehar.

Hiru hitzaldi programatu dira. 'Nola jarri bizitza erdigunera? Ekonomia feministaren oinarriak' izango da hitzaldietako baten gaia. Bigarrean, 'Zahartzea, ereduak eta alternatibak' izango dira hizpide, eta hirugarrena zaintzen inguruko hitzaldi zikloa izango da: 'Zaintza eta etxeko lanen egungo egoera eta erronkak'. Mugimendu feministak azaroaren 30erako deitu duen grebarako motorrak bertzeko balioko du.

▲  
Irailaren 11tik aurrera etxe guztietara banatuko da Jabetze Eskolaren 2023ko udazkeneko egitaraua. Irailaren 30era arteko epea egongo da izena emateko ikastaro-tailer ezberdinetan

# AZAROAREN 30EKO GREBA OROKORRA



## prestatzen hasi da Oñatiko Mugimendu Feminista

Euskal Herriko Mugimendu Feministak azaroaren 30erako deitu duen greba orokorra prestatzen hasia da Oñatiko mugimendu feminista. Halaxe adierazi zuten ekainaren 29an egindako prentsaurrekoan. "Zaintza-antolaketa publiko eta komunitario baten alde aterako gara kalera. Zaintza-eskubide kolektiboaren alde, baita Oñatin ere! Zaintzen afera guztion ardura delako".

Indarrean den gizarte ereduak zaintza lanak nagusiki langile klaseko emakumeen bizkar uzten dituela salatu zuten. "Zerbitzu publiko urri eta prekarioak emakumeak lan jardun bikoitz eta amaiezinak betetzera behartzen ditu".

Etxeko langileen baldintza "negargarri eta onartezinak" ere salatu zituzten. "Zaintzaren sektorea arautu gabe dagoen aldetik, muturreko diskriminazio eta esplotazio egoerak sortzen dira. Sistema kapitalista, kolonialista eta matxistak ezarritako zaintza-sistemetan batzuk askoz gehiago galtzen dute beste batzuk baino, eta injustizia honekin bukatu beharra dago!. Zaintza lanak ezinbestekoak dira bizitzeko. Ezin dira ikusezin mantendu eta merkantilizatzen

jarraitu".

Zaintzarako eskubide kolektibo baten aldeko aldarria egin zuten, guztioi dagokigun erantzukizuna dela esatearekin batera. "Gizartea eraldatzeko neurriak bultzatu nahi ditugu, zaintza-antolaketa erantzukizun sozial bihur dauden, eta ez negozio". Ildo horretan, borroka-dinamika bati ekin diotela

iragarri zuten, egungo zaintza-sistema eraldatzeko asmoz. "Dinamika horrek bat egin du zaintzaren sektorean lan-baldintzak hobetzeko borrokan ari direnekin. Gure inguruetan zerbitzu publikoen kalitatea defendatzen duten kolektiboekin ere indarrak batu nahi ditugu. Aliantzak bultzatu nahi ditugu Oñatiko

herri mugimenduekin, baita dena aldatzeko zaintza-antolaketa irauli nahi duten guztiekin ere".

Azaroaren 30eko greba orokor feminista antolatzeko lanetan hasita daudela aurreratu zuten. Irailean deialdi irekia egingo dute informazioa elkarbanatzeko eta lan-taldeak antolatzeko. Harremanetarako: [bizitzakerdiguneanonati@gmail.com](mailto:bizitzakerdiguneanonati@gmail.com).

“  
*Zaintza-antolaketa publiko eta  
komunitario baten alde  
aterako gara kalera.  
Zaintzen afera guztion ardura da*



Ramon Irizar kalea, 3  
Tel: 943 71 61 60

✉ [etxian@etxian.net](mailto:etxian@etxian.net)  
[www.etxian.net](http://www.etxian.net) f i



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • [garibai@garibai-aroztegia.com](mailto:garibai@garibai-aroztegia.com)  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)

# “GIGAK PARTEKATUZ AURREZTEKO TARIFA”



**FIBRA 300Mb**

+ **MUGIKORRA 30GB**

+ **DEI MUGAGABEEKIN**

**39,90€** /HILEAN

2<sup>o</sup> LINEA MUGIKORRA  
**GB PARTEKATUZ**  
+3 €/HILEAN

KONTRATATU HEMEN:

 **LIZKER**  
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA

TLF: 943 090 600



BEZa barne. Dooko instalazioa, 3 hilabetez egon behar duena. Gehitu linea gehigarriak hilean 3 €-tik aurrera eta aukeratu zure GB linea nagusiarekin eta gainerako linea mugikor gehigarriekin partekatu nahi duzun. Gehienez ere 3 euroko lerro gehigarri bat eta kontratu bakaltzeko beste hiru lerro gehigarri. Kontsultatu gainerako baldintzak salmenta-puntuan.

**MÁSMÓVIL**

AHORRA, SIN MÁS

# Matrikula aldia zabalik

## UDAL EUSKALTEGIAN

Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegian prest daude ikasturte berriari ekiteko. Aurten ere eskaintza zabala prestatu dute: Euskalduntze eta Alfabetatze mailak, titulu ofizialak (HABEren A1, A2, B1, B2, C1 eta C2. mailak) lortzeko ikastaroak, aurrez aurrekoak, etorkinei zuzendutako ikastaroak, Oñatiko euskara lantzekoak, ostalaritza eta zaintza arlokoentzat... Maila eta behar guztietara egokitutako eskaintza zabala. Izena ematen duten ikasleen artean matrikula baten zozketa egingo da. Joan den ikasturteko zenbait ikasleren iritziak bildu ditugu.



**HIDENAHO DOHINO**

*"Nire euskara maila aberasteko oso lagungarria izan da euskaltegia"*

Japoniarra bera, urtebete pasa darama gure artean Hidek. Historialaria formazioz, Gipuzkoako komunitate tradizionalei eta 1766ko matxinadari buruzko ikerketa lana burutzen ari da Gipuzkoako Artxibo Probintzian, eta, aldi berean, bere euskara maila hobetzen ari da udal euskaltegian, C1 mailako taldean. "Etorkizunean, Euskal Herriko historiari lotuta jardun nahi nuke profesionalki, eta horretarako prestatzen ari naiz. Oso gustura nabil euskaltegian. Taldean giro polita izan dugu eta, batez ere, nire euskara maila aberasteko oso lagungarria izan da. Datorren urtean C2 titulua eskuratzen saiatuko naiz".



**ANGIE MENESES**

*"Zaintza arloan lan egiten dugunontzako ikastaroa egin dut eta asko lagundu dit"*

Kolonbian jaioa, duela urte eta erdi iritsi zen Oñatira. Adineko pertsona bat zaintzen lan egiten du eta, hain zuzen ere, zaintza arloko langileei zuzenduta euskaltegiak antolatu duen ikastaro berezian parte hartu du, eta oso gustura dago. "Batez ere ulermena lantzea izan da helburua. Gure eguneroko lanean izaten ditugun elkarrizketak praktikatu ditugu, eta aurrerapen handia igarri dut egunerokoan. Jarraitzeko asmoa daukat. Nire helburua da poliki-poliki euskara maila on bat lortzea nire formazioarekin —komertziala— lotutako lan aukerak eduki ahal izateko".



**ANE CASADO**

*"Hizkuntzak gustatu egiten zaizkit eta disfrutatzen ari naiz euskara ikasten"*

Malagakoa sortzez, hiru urte daramatza Oñatin bizitzen eta bigarren kurtsoa egin du euskaltegian, A2 mailako taldean. Irakaslea da formazioz, eta Gizarte Hezkuntzako ikasketak egiten ari da. "Batean zein bestean lan egiteko C1 maila eskatzen dute, baina ez da hori euskara ikasteko arrazoi bakarra. Bestela ere, hizkuntzak asko gustatzen zaizkit, eta hemen integratzeko ezinbestekoa iruditzen zait euskara ikastea. Egia esan, oso gustura nabil euskaltegian eta asko disfrutatzen ari naiz euskara ikasten. Zaila da, eta, tarteka, etsipen puntu bat ere sentitu izan dut, baina jarraitu egin nahi dut maila txun bat lortu arte".

**CORTABARRIA**

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behe • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

**GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



**653 70 45 47**

Oñati



ANDIER MELGAR

*"Euskara ikasi nahi dut lagun berriak egiteko"*

**B**oliviatik etorrira, iazko ekainean iritsi zen Oñatira, aurrez gurasoek irekitako bideari jarraituz. Hona iritsi arte ez zeukan euskararen berririk, baina hemengo errealitatea ezagutu ostean garbi dauka euskara ikasi nahi duela, lagun berriak egiteko eta hemen jaiotako anai-arreba txikiekin euskaraz berba egin ahal izateko. "Hasieran zaila egin zitzaidan, beste hizkuntzekiko oso ezberdina delako euskara, baina ari naiz ikasten, astiro-astiro, eta ulermen mailan batez ere aurrerapauso handia eman dut. Oso polita da beste hizkuntza bat ikastea, eta animatu egin nahi dut jendea euskara ikastera".



CAMILA KULIBA

*"Inportantea da bizi zaren tokiko hizkuntza ikastea"*

**A**rgentinan sortua, duela urte eta erdi iritsi zen Oñatira eta kurtso osoa egin du euskaltegian. "Hemen bizi nahi badut, bidezkoa iruditzen zait bertako hizkuntza ikastea. Polita iruditzen zait euskara, baina zaila ere bada eta gorabeherak izan ditut ikasturtean zehar, baina irakasleak asko lagundu dit, pazientzia handia izan du, eta animatu naiz berriro ere. Hobekuntza handia nabaritu dut ikasturtean zehar, eta berba egitea oraindik kostatu egiten bazait ere, ulermen mailan eta idazteko garaian ere aurreratu dut, eta oñatiera ere ikasten ari naiz. Ama ere animatu dut euskara ikastera".



XABIER URBINA

*"Euskaltzalea izanik, euskara maila hobetu nahi nuen"*

**E**uskaldun zaharra izanik, ez zuen bere burua euskaltegian ikusten, baina bi arrazoik bultzatu dute C2 mailako taldean —euskaltegian dagoen mailarik altuena— izena ematera. "Alde batetik, curriculum osatu nahia. Ikasketaz ingeniaria naiz eta, berez, ez daukat euskara tituluaren beharrik, baina sekula ez da jakiten. Lehendik C1 maila baneukan, eta C2 ere ez da soberan egongo. Bestetik, euskaltzalea izanik, beti eduki izan dut nire euskara maila hobetu eta sakontzeko gogoia. Horregatik eman dut izena, eta animatuko nituzke euskararekiko kezka duten guztiak euskaltegira etortzera. Oso talde giro ona egoten da eta merezi du".

## EUSKARA IKASTARO BEREZIAK

### Zaintzaileentzako



- **Hartzaileak:** Euskara ez dakiten (edo oso gutxi dakiten) Oñatiko zaintzaileak
- **Helburua:** Ahozko oinarrizko komunikazioa lantzea. Zaintza-lanak euskaraz egin ahal izateko oinarrizko hizkuntza-baliabideak ezagutzea
- **Iraupena:** 60 orduko ikastaroa, urritik urtarrilera, 4:30 ordu astean
- **Ordutegia:** 15:00 - 16:30
- **Matrikula:** Doan. Udalak finantziatutako ikastaroa. (Baldintza: Oñatin adinekoak zaintzen lan egitea)
- **Izen-ematea:** irailaren 1etik 22ra

### Tabernari eta ostalarientzako



- **Hartzaileak:** Euskara ez dakiten (edo oso gutxi dakiten) Oñatiko taberna, ostatu eta jatetxeetako langileak
- **Helburua:** Ahozko oinarrizko komunikazioa landuko da: bezeroak artatzeko erabiltzen diren hitz eta esaldi ohikoenak
- **Iraupena:** 60 orduko ikastaroa, urritik urtarrilera, 4:30 ordu astean
- **Ordutegia:** 9:00 - 10:30
- **Matrikula:** Doan. Udalak finantziatutako ikastaroa. (Baldintza: Oñatin ostalaritzako establezimendu batean lan egitea)
- **Izen-ematea:** irailaren 1etik 22ra

# Suizidioa hizketagai

Oñatiko Elkar Zainduz taldeak antolatutako hitzaldia egongo da **irailaren 25ean**



**BIDEGIN**  
elkarteko Izaskun Andonegi izango da hizlaria

Dolu-prozesua bizi duten pertsoneri laguntzeko asmoz Oñatin sortu den ELKAR ZAINDUZ taldeak antolatuta, suizidioari buruzko hitzaldia egongo da irailaren 25ean (18:30), Santa Ana antzokian

Dolu-prozesuetan laguntzeaz gain, heriotzarekin lotutako gaiari buruzko hitzaldi-solasaldiak ere antolatzen ditu Elkar Zainduz taldeak, gai hauen inguruko gizarte-sentsibilizazioa sustatzeko asmoz. Ildo horretan, doluari eta zaintza paliatiboei buruzko hitzaldiak antolatu izan dituzte eta, orain, suizidioaren gaia jarriko dute hizpide. "Heriotza gai deserosoa da, eta horri buruz pentsatzea are gehiago. Askotan pentsatu izan dugu: zergatik da hain zaila heriotzari buruz hitz egitea eta onartzea? Zergatik ezin da bizitzaren parte gisa txertatu? Zergatik da hain beldurgarria? Beharrezkoa iruditzen zaigu heriotzari buruz gehiago hitz egitea, baita suizidioari buruz ere. Suizidioa osasun publikoko arazoa da, milaka pertsonari eragiten diona, baina estigmatz, mitoz eta tabuz inguratutako gaia izaten jarraitzen du", adierazi digute Elkar Zainduz taldekoek.

Doluak eta eritasun larriek eragindako oinazea pairatzen duten pertsoneri laguntzeko asmoz sortutako BIDEGIN elkartearen sortzaile Izaskun Andonegi erizaina izango da hizlaria.

## Alzheimerrari aurre egiteko AFAGI-k Oñatin eskainiko duen zerbitzuaren aurkezpena



**IRAILAREN 29AN**  
egingo da aurkezpena, udaletxeko areto nagusian, 18:30etan

Uztailean aurreratu genuen moduan Udalak lankidetzat hitzarmena sinatu du AFAGI elkartearekin, alzheimerra edo bestelako demenziek herritarren artean sortzen dituzten kezka eta beharrei erantzuteko asmoz.

Sindrome neurodegeneratiboren bat duten gaixoei eta hauen senideei laguntzeko lanean diharduen Gipuzkoa mailako elkarte da AFAGI, eta Oñatiko udalarekin hitzartu duen lankidetzat egitasmoaren baitan **Estimulazio Kognitiboko Tailerra** jarriko da martxan gure herrian, alzheimerra edo beste demenziaren bat hasierako fasean duten herritarrei zuzendua, pertsona horien funtzio kognitiboak babestu, landu eta estimulatzeko helburuarekin.

Zerbitzu berri hau aurkezteko hitzaldia egongo da **irailaren 29an**, udaletxeko areto nagusian. Hitzaldiaren ostean Ganbara Abesbatzak hainbat kanta abestuko ditu. Gainera, **irailaren 16an** AFAGI elkarteak informazio mahaia ipiniko du herriko plazan (10:00-13:00).

*Urte askotan zuekin*

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)



Jaione San Miguel Ugarte

**MAPFRE**  
OÑATI





Udal Euskaltegiak. Publikoak, irekiak, guztiontzat.

# EUSKARA, bidaia harrigarria

#euskarharrigarria

## MATRIKULA ZABALIK

irailaren 1etik 22ra

Oñatiko Udal Euskaltegian (Bidebarrieta, 18)  
Bulego ordutegia: 9:00 - 13:00 / 16:00 - 18:30  
943 782 496 / euskaltegia@onati.eus

Ohiko beka sistemaz gain, iraupen luzeko langabetuentzat dohainik (informatu euskaltegian).  
Matrikulatzen diren ikasleen artean matrikula baten zozketa egingo da.

AZTERKETA OFIZIALAK  
MAIATZEAN ETA IRAILEAN

Eskaerari egokitutako erritmo eta ordutegiak

## MATRICULA ABIERTA

Del 1 al 22 de septiembre

En el Euskaltegi Municipal de Oñati (Bidebarrieta, 18)  
Horario de oficina: 9:00 - 13:00 / 16:00 - 18:30  
943 782 496 / euskaltegia@onati.eus

Además del sistema habitual de becas, parados de larga duración, gratis. Infórmate en el euskaltegi. Entre los matriculados se sorteará una matrícula.

EXAMENES OFICIALES  
EN MAYO Y SEPTIEMBRE

Ritmos y horarios adecuados a la demanda



# UDALBATZA BERRIA ABIAN DA

Ekainaren 29an egin zen udaletxeko **batzorde informatibo iraunkorrak** eratu eta berauen osaera onartzeko ez-ohiko bilkura. **Alkateordeak** eta **Tokiko Gobernu Batzordeko** kideak ere izendatu ziren bertan eta udal talde politikoentzako **ordainsariak** ere onartu ziren, besteak beste

Udalaren jardunerako oinarritzakoak diren hainbat gai onartu ziren ekainaren 29ko ez-ohiko bilkuran.

Bestea beste, hamabost lan batzorde (batzorde informatibo iraunkorrak) eratzea onartu zen. EAJko bozerama-leak gehiegi zirela iritzi zion, baina gaiak hobeto lantzeko aukera ematen duen antolaketa dela defendatu zuen alkateak. Eskumako orrian ikus daiteke zein batzorde izango diren eta bakoitzaren osaera.

Bestalde, alkatearekin batera Gobernu Batzarra osatu eta alkateorde kargua izango duten zinegotzien izendapena egin zen, eta talde politiko zein zinegotziek izango dituzten ordainsariak ere onartu ziren.

## Tokiko Gobernu Batzarra

Izaro Elorza alkatearekin batera EH Bilduko bost zinegotzik osatuko dute Tokiko Gobernu Batzarra. Hauek dira:

- Xabier Igartua
- Iñigo Ruiz
- Iñaki Olalde
- Lierni Altube
- Anik Zubizarreta

## Alkateordeak

Tokiko Gobernu Batzarra osatzen duten EH Bilduko zinegotzi horiek berak izango dira, hurrenkera berean, alkateordeak 2023-2027 agintaldian

## Talde politikoaren eta zinegotzien ordainsariak

Udalbatzan ordezkariak duten bi talde politikoek (EH Bildu eta EAJ-PNV) diru-sari finko bat (55€ hileko) eta beste bat aldakorra (zinegotzi kopuruaren arabera). Hala, EH Bilduk 5.500€ jasoko ditu hileroko, eta EAJk 3.025€.

Bestalde, dedikazio berezirik ez duten zinegotziek 35€ jasoko dute hilean behin egin ohi den osoko bilkuran parte hartzeagatik, eta 25€ informazio batzordeetan parte hartzeagatik (gehienez 4 saio kobratu ahal izango da hilean).

EH Bilduko zinegotziek uko egin diote ordainsari hau jasotzeari.

## Zinegotzien dedikazioa eta soldatak

Lau dira dedikazio esklusiboa edo partziala izango duten zinegotziak. Izaro Elorza alkateak arduraldi esklusiboa izango du (53.220 euro gordin urtean). Xabier Igartua eta Iñigo Ruizek %50eko dedikazioa izango dute (20.514 euro gordin urtean), eta Iñaki Olalde %30ekoa (12.308 euro gordin urtean).

## BATZORDE INFORMATIBO IRAUNKORRAK

### OGASUNA



Xabier Igartua (EH Bildu)  
Izaro Elorza (EH Bildu)  
Xabier Mugarza (EAJ)

### PERTSONALA



Izaro Elorza (EH Bildu)  
Iñigo Ruiz (EH Bildu)  
Eva Maria Gayubo (EAJ)

### HIRIGINTZA



Iñigo Ruiz (EH Bildu)  
Izaro Elorza (EH Bildu)  
Eva Maria Gayubo (EAJ)

### ZERBITZUAK



Xabier Igartua (EH Bildu)  
Iñigo Ruiz (EH Bildu)  
Amaia Erostarbe (EAJ)

### LANDA GARAPENA



Xabier Igartua (EH Bildu)  
Iñigo Ruiz (EH Bildu)  
Angel Mari Biain (EAJ)

### INGURUMENA



Iker Oñate (EH Bildu)  
Xabier Igartua (EH Bildu)  
Eva Maria Gayubo (EAJ)

### BERDINTASUNA



Izaro Elorza (EH Bildu)  
Anik Zubizarreta (EH Bildu)  
Itziar Alonso (EAJ)

### PARTAIDETZA



Anik Zubizarreta (EH Bildu)  
Iñaki Olalde (EH Bildu)  
Claudia Valdivieso (EAJ)

### ONGIZATEA



Liemi Altube (EH Bildu)  
Anik Zubizarreta (EH Bildu)  
Amaia Erostarbe (EAJ)

### TURISMOA



Xabier Igartua (EH Bildu)  
Idoia Aierbe (EH Bildu)  
Claudia Valdivieso (EAJ)

### KULTURA



Iñaki Olalde (EH Bildu)  
Asier Lauzurika (EH Bildu)  
Amaia Erostarbe (EAJ)

### GAZTERIA



Ekhiñe Mendi (EH Bildu)  
Anik Zubizarreta (EH Bildu)  
Itziar Alonso (EAJ)

### KIROLA



Saioa Arkonada (EH Bildu)  
Iker Oñate (EH Bildu)  
Xabier Mugarza (EAJ)

### SOZIOEKONOMIA



Idoia Aierbe (EH Bildu)  
Iñigo Ruiz (EH Bildu)  
Xabier Mugarza (EAJ)

### EUSKARA/HEZKUNTZA



Asier Lauzurika (EH Bildu)  
Iñaki Olalde (EH Bildu)  
Angel Mari Biain (EAJ)

(\*) Letra lodiz batzordeburuak

## Batzorde informatiboak, Gobernu Batzarra eta Osoko Bilkura

Udaletxeko **batzorde informatibo iraunkorrak** astero edo hamabostean behin elkartu ohi dira, bakoitzaren lan kargaren arabera. Normalean itxiak dira, baina gai konkreturen baten inguruko azalpenak eman nahi dituen herritarrak ere parte hartzeko aukera du, aurrez batzordeko buruari baimena eskatuta.

**Tokiko Gobernu Batzordea** astero biltzen da eta batzorde informatiboetatik iristen diren gaien inguruko erabakiak hartzen dira bertan. Alkateak eta EH Bilduko bost ordezkari osatzen dute Tokiko Gobernu Batzarra.

**Osoko Bilkura** edo plenoa hilean behin egin ohi da. Zinegotzi guztiek parte hartzen dute. Udalaren aurrekontuak, ordenantza fiskalak, obra esleipenak eta mozioen inguruko erabakiak hartzen dira bertan. Irekiak izaten dira eta herritarrek ere har dezakete hitza, alkatearen baimenarekin galde-erreguen tartean.

**Herriko txoko guztietara iritsi nahi duzu?**

jarri zure iragarkia aldizkarian

publi@onati.eus

**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



## Kiroldegiko tabernaren ustiapena lizitaziora atera du Udalak

Zubikoa kiroldegiko tabernaren ustiapenaren lizitazioa arautuko duen baldintza zerrenda onartu eta deialdia egitea erabaki du Udalak. Hileko gutxienerako errenta 200 eurotan (+BEZ) finkatu da, eta lizitatuzaileek prezio hori gorantz hobetu ahal izango dute, horren arabera puntuazioa jasoko dutelarik.

Eskaintza ekonomikoaz gain (gehienez 30 puntu), lizitatuzailearen esperientzia (15 puntu), zerbitzuaren antolaketa (15 puntu), langileen lan eskarmentua (12 puntu), ordutegi-egutegian proposatutako hobekuntzak (10 puntu) eta garbiketa zerbitzuaren plangintza (5,5 puntu) hartuko dira kontuan, besteak beste.

Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera 36 egun naturaleko epea irekiko da, nahi duenak egoki irizitako proposamenak aurkez ditzan.



**200 eurotan finkatu da hileko gutxienerako errenta. Lizitatuzaileek hortik gorako proposamenak egin ahal izango dituzte**

## Landa eremuko lursailen mugaketa egiteko zerbitzua kontratatuko du Udalak

Oñatiko udaleko landa lurzoruko lursailen mugaketa zerbitzua kontratatzeko deialdia egin du Udalak. Zehazki, Oñatiko landa katastroko 1., 2. eta 3. poligonoetako partzelen arteko mugak digitalki jasotzea da xedea; hau da, landa-lurren kokalekuak GPS bidez geo-erreferentziatuta egotea lortu nahi da, eta, bide batez, Gipuzkoako Foru Aldundiko katastro zerbitzuko informazioa zuzendu eta eguneratzea.

Lurzati mugaketa zerbitzuaren kontratuak 12 hilabeteko iraupena izango du, eta lizitazioaren oinarriko aurrekontua 128.922 eurotan (BEZ barne) finkatu da. Eskaintza ekonomikoaz (50 puntu) gain, txosten teknikoa (25 puntu), kronograma (5 puntu) eta lantaldeak antzeko lanetan duen esperientzia (25 puntu) baloratuko dira esleipena egiteko garaian. Interesatuak irailaren 8ra arteko epea dute proposamenak aurkezteko. Udalak Foru Aldundiaren laguntza (25.000€) jasoko du egitasmo hau aurrera ateratzen laguntzeko..



▲  
Oñatiko landa katastroko 1., 2. eta 3. poligonoetako partzelak mugatuko dira fase honetan

## Angel Mari Biainek ordezkatu du Jon Kepa Gerrikagoitia EAJren udal taldean



Arrazoi pertsonalak tarteko, EAJren udal taldeko Jon Kepa Gerrikagoitia zinegotziak uko egin dio ekainaren 17an onartu zuen zinegotzi karguari, eta Angel Mari Biain Zubiagirrek beteko du hark utzitako lekua. Hala jakinaraziko zaio Hauteskunde Batzordeari eta, ustekaberik ez bada, iraileko osoko bilkuran hartuko du kargua. Biainek 61 urte ditu eta Nekazaritzako Ingeniari teknikoa da.

**EGUR-LAN**  
AROTEGIA  
LIMABAR S.A.L.  
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
TEL/ FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com  
www.egur-lan.es

**smk**  
san miguel kooperatiba  
943 781 217  
kale barria 8 - 20560 oñati  
www.sanmiguel.coop

# Artzain txaboletan egindako hobekuntza lanetarako dirulaguntza deialdia egin du Udalak

Oñatiko Herri Onurako Mendietako artzain txaboletan egindako hobekuntza lanak diruz laguntzeko deialdia egin du Udalak. Dirulaguntza lerro honen bidez, abeltzaintza estensiboa sustatu nahi da eta, halaber, artzain txabolei erabilera emanaz udal ondarea kontserbatzen lagundu.

Lau atal edo laguntza lerro bereizi dira deialdian:

1. Artzaintza ustiatzearen errentagarritasuna hobetzeko inbertsioak. Bereziki ekoizpen kostuak murriztu, energia gastuak gutxitu, ekoizpena handitu edota nekazaritzako jarduerak anizteko: jezteko eta esnea hozteko instalazioak, artzaintza instalazioetako inguruko hesiak, erabilerarako barrutiak, eusteko mahukak...

2. Txabolen bizigarritasun baldintzak hobetzeko gastuak: erreteila egitea, fatxada margotzea, instalazioen mantenuari lotutako gastuak...

3. Txabolen bizigarritasun baldintzak hobetzeari lotutako gastuak: berokuntza sistema, ur hornidura, argindarra, egongelen (sukaldea, komuna, logela) eraberritzea...

4. Txabolen egonkortasunari lotutako gastuak: zimenduak, karga hormak, egitura, itxitura (leihoak...)...

Laguntzak banatzeko orduan lehentasuna izango dute artzaintza ogibide dutenek, eta lehenetsi egingo dira jarduerari lotutako inbertsio edo gastuak. Udalak 13.000 euroko diru partida dauka aurtengo aurrekontuetan laguntza hauetara bideratzeko. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean deialdia.



Laguntzak banatzeko orduan lehentasuna izango dute artzaintza ogibide dutenek, eta lehenetsi egingo dira jarduerari lotutako inbertsio edo gastuak

## 'Auzotasuna' ataleko dirulaguntza gehigarriak

'Auzotasuna' programaren baitan udalak diru-atal gehigarri bat du, auzoek sustatu baina udalaren eskumenekoak diren edo auzoak gaindiko herri-onura bat izan dezaketen egitasmoak diruz laguntzeko.

Aurten 22.000 euro ditu udalak egitasmoa hauetarako, eta deialdira aurkeztutako sei proiektuetatik bostek jasoko dute laguntza: Olabarrietako auzo-bideetan biondak jartzea (5.636€); Berotegi baserrirako bidea asfaltatzea (6.759€); Azkoagain eta Urrintxo arteko oinezkoen bidea argizatzea (4.307€); Garagaltza auzoko bideetako kunetak konpontzea (1.495€); Errekalde eta Torretxebarri artean biondak jartzea (3.801€).

## Auzo-bideetan egingo diren konponketa eta hobekuntza lanak lizitaziora

Uztailaren 18an egin zen auzo-alkateen foroan adostu ziren aurten landa eremuko bideetan udalak egingo dituen konponketa eta hobekuntza lanak, eta, orain, obra horiek kontratatzeko deialdia egin da, Injelan enpresak idatzitako exekuzio proiektuaren arabera.

Guztira, hamabi esku-hartze egitea aurreikusten da, Iruatz, Lezesarri, Santa Lutzia, Tokillo, Kamela, Otadui-Urzelai, Agerre, Araotz Urruti eta Lurgorrieta baserrien inguruko bideetan. Konponketa eta hobekuntza lan orokorrak egingo dira (lur mugimenduak, zolatze lanak, euste azpiegiturak, euri-urak bideratzeko azpiegiturak...) eta 134.551 eurotan (BEZ gabe) finkatu da lizitaziorako oinarrizko aurrekontua. Interesatuak irailaren 8ra arteko epea dute proposamenak aurkezteko.



Konponduko den bideetako bat, Kamelakoa inguruan



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 11 15 • [www.batuak.com](http://www.batuak.com)



TEVIAL elkarteak diseinatutako piktogramak pintatuko dituzte herriko hainbat zebrabidetan

# Mugikortasun inklusiboa eta segurua helburu

Argazkikoak bezalako irudiak marraztuko dituzte herriko hainbat zebrabidetan, batez ere autismoa duten haurren bide-segurtasuna hobetzeko asmoz

Eskolarako joan-etorrietan mugikortasun aktiboa, jasangarria eta segurua sustatzeko asmoz, Udalaren Hezkuntza sailak eta herriko ikastetxeek sustatzen duten 'Bagabiltz-Eskolako Bidea' proiektuaren baitan, herriko hainbat zebrabide seinaleztatu dituzte herritarren autonomia, irisgarritasuna eta bide-segurtasuna hobetzeko asmoz, batez ere autismoaren espektra nahasmendua (AEN) duten haurrena.

AEN duten pertsonak zailtasun kognitibo bereziak dituzte, eta horrek zaildu egiten die herritarrentzat oro har diseinatu diren zenbait mezu edo egoera ulertzea. Oinez doazenean, kolektibo honek ez ditu beti ondo ulertzen oinezkoen pasabideak, beren marka zuriekin asfalto gainean. Aldiz, ilustrazio edo piktogramek informazio erreala ematen diete zebrabideak zeharkatzeko orduan hartu beharreko arreta eta babes neurrien inguruan.

**Zirkulazio maila handiko guneetan eta ikastetxeetara, jolasguneetara edo ekipamendu publikoetara doazen zirkulazio eremuetako zebrabideak seinaleztatu dira piktograma bidez**

Horregatik, TEVIAL elkarteak diseinatutako materiala baliatuz, piktogramen sekuentzia zebrabideetan pintatuta oinezkoen pasabideak egokituko dira kognitiboki irisgarriago egiteko. Horrela, pertsona horiek hobeto uler dezakete zer egin behar duten zebrabide batera iristean, autonomia pertsonala eta bide-segurtasuna areagotuz.

Piktogramen sekuentzia TEVIAL elkarte andaluziarrak eta Sevillako unibertsitateko irakasle Carlos Hervás Gómez irakasleak garatu dute. Piktograma horiek lortzeko, 1.800 pertsonarekin lan egin da, eta unibertsitateko irakasleez gain, udaltzainek, osasun langileek eta

EAN duten neska-mutilen familiek parte hartu dute.

Oñatin, hainbat pasabide seinaleztatu dira. Zirkulazio maila handia duten guneetan eta ikastetxeetara, jolasguneetara eta espazio edo ekipamendu publikoetara doazen ohiko zirkulazio eremuetan dauden zebrabideak dira.



**Ingelesko Akademia**  
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiaitui Kortabarria  
Irakaslea  
Arantzazuko Ama, 3 behea  
943 53 36 57  
20560 OÑATI (Gipuzkoa)  
4sgoiena@gmail.com  
[www.4sgoiena.com](http://www.4sgoiena.com)

**Gezalaga**  
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | [gezalagamargoak@hotmail.com](mailto:gezalagamargoak@hotmail.com)

# 16 tailer-ikastaro antolatu ditu Pake Lekuk ikasturte berrirako

» Irailaren 15era arteko epea dago izena emateko



## IKASTARO-TAILERRAK

1. Musika Hizkuntza
  2. Abesbatza
  3. Antzerkia
  4. Euskara (Mintzapraktika)
  5. Euskara (Irakurle taldea)
  6. Ingelesa. Hastapena (\*)
  7. Teknologia berriak. Hastapena (\*)
  8. Dantzak. Hastapena (\*)
  9. Yoga (2 talde)
  10. Memoria
  11. Orratz lanak
  12. Puntua
  13. Bitxigintza
  14. Panpinak
  15. Informatika
  16. Wikipedia
- (\*) Ikastaro berriak

**Emán biritza urteei! Animatu zaitetz!**

## ARGAZKI LEHIAKETA

'Hirugarren  
adinekoen uda'



Pake Leku elkarteak bazkideei zuzendutako argazki lehiaketa antolatu du. **Uztailaren 15etik irailaren 15era** bitartean ateratako argazkiak aurkeztu ahal izango dira, formato elektronikoa. **Bi sari** egongo dira, bata herri bozketa bidez erabakiko da, eta bestea epaimahaiaren erabakiz. Bientzako saria hauxe izango da: oroigarria eta bi lagunentzako afaria Pake Lekun. Aurkeztutako argazkiak Pake Lekuko artxiboan geldituko dira.

## Abuztuan pediatria zerbitzua eten izana kezka jaso du udal gobernua

Abuztuaren 7tik 25era ez da pediatria zerbitzurik egon Oñatiko anbulatorioan, eta udal gobernua kezka jaso du Osakidetza agindutako zerbitzu murrizketa hau. "Azken urteotan nabarmen ahuldu da osasun zerbitzu publikoa EAEn, eta ez da egoera irauliko denaren zantzurik" adierazi du gobernu taldeak, eta dei egin dio Jaurilaritari osasun zerbitzua indartzeko. "Osasuna dago jokoan. Azken urteotan osasunaren eta osasun zerbitzuen garrantzia berresten lagundu duten gertaerak eta egoerak izan dira, osasun krisi batek eraginda, batez ere. Zerbitzua ahultzeko erabakiak ez dira ulergarriak. Indartu beharra dago, beharrezko bitartekoak jarritz".

## EH Bildu nagusi hauteskunde orokorretan

3.081 boto jasota (%50,92) EH Bildu izan zen lehen indarra Oñatin uztailaren 23ko hauteskunde orokorretan. EAJK 1.696 bozka (%28,03) eskuratu zituen, PSE-EEK 666 (%11,01), Sumar-ek 387 (%6,40), PPK 154 (%2,55) eta VOXek 23 (%0,38). Duela lau urteko emaitzekin alderatuz, EH Bilduk 6,79 puntu egin du gora, eta EAJK 7,31 puntu behera. PSE-EEK (2,98) eta PPK (0,39) gora egin dute eta Podemosek lortu zituen datuekin alderatuz, Sumar-ek 2,75 puntu egin du behera.



**Gualbi**  
asesores

*Bezeroen beharrei erantzuteko prest!*

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea  
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza  
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6  
T.: 943 781 648  
onati@gualbiasesores.com  
-  
[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)



# Tontorretik

## mendizaletasuna eta argazkilaritza

📷 Xabi Agirre Bikuña

**I**rudi eder batek mila hitzek baino gehiago balio duela esan ohi da, eta orrialde hauetako argazkiak izan daitezke horren adibide. Xabi Agirre Bikuñaren sinadura daramaten fotografiak dira, azkenaldian sare sozialetan gure arreta bereganatu duten beste hainbat irudi eta erretratuk bezalaxe, eta egilea 21 urteko gazte ingeniari bat dela jakiteak, gertuagotik ezagutzeko gogoia piztu digu.

Gurasoengandik jaso zuen mendirako zaletasuna, eta beste askoren antzera, etxean zegoen kamera txiki batekin hasi zen bere lehen argazkiak ateratzen, etxe inguruko nahiz Pirinioetako mendietan. Duela 5-6 urte bere aurreneko kamera erosi zuen, udalekuetan jasotako lehen soldatarekin, eta halaxe joan da, poliki poliki mendi-argazkilaritzan zaletzen eta 'espezializatzen'.

Natura eta, batez ere, mendiarekin lotutako argazkiak atera ohi ditu. Kafea termoan hartu eta goizean goiz mendira abiatzea gustatzen zaion horietako da. Egunsentiko edo, bestela, ilunkarako argia eta koloreak ditu gustuko, eta, egiari zor, une berezi horiek harrapatzeko abilezia eta sentsibilitate berezia duela aitortu behar da.

Normalean ez du prestaketa edo plangintza berezirik egiten. Kamera beti motxilan eraman ohi du, eta okasioa suertatzen bada, ondo; baina helburu nagusia mendiaz gozatzea izaten da, eta argazkiak



ateratzearena zeozer naturala izaten omen da.

Formatu digitalean ateratzen ditu argazkiak eta sareetara igo aurretik ukituren bat ematen diela aitortu digu, baina ez askorik. "Kamera batekin ez duzu inoiz harrapatzen begiz ikusten duzun hori. Orduan, uste dut zilegi dela argazkiari ukituren bat egitea, ez argazkia hobetzeko, baizik eta begiz ikusi duzun horretara ahalik eta gehien gerturatzeko", azaldu digu Xabik.

### MENDI LASTERKETAK

Paisaia ederrak ez ezik, mendi lasterketetako argazkiak eta, batez ere, Malen Osa korrikalari ofñatiarrarenak ere, ohikoak dira 'Tontorretik' atarian. "Aspaldiko lagunak gara Malen eta biok. Askotan ibili izan gara mendian batera. Oroelen orain dela bi urte egin zuen lehen mendi lasterketa ikusten egon nintzen eta, gerora, bere ibilbidea ahalik eta gertuen jarraitzen saiatu naiz. Ekainean, adibidez, Erasmusa egiten



@tontorretik

Alemanian nengoela aprobetxatuz, Innsbruck-era (Austria) joan nintzen, munduko txapelketa bertatik bertara ikustera, eta uztailean Dolomitetan egon nintzen, Malenen karrera bat jarraitzen. Egia esan, Maleni esker mendi lasterketen

mundua ezagutu eta leku ikusgarrietan egoteko aukera izan dut. Konfiantza handia dugu bion artean, eta, tarteka berarekin entrenatu edo argazki saio batzuk egiteko nirekin kontatzen duela ikustea garrantzitsua da niretzat, oihartzun edo hedapen handiagoa ematen diotelako nire argazkiei. Horietako batzuk marka ezagunek erabili dituztela ikustea ere pozgarria da. Egia esan, mendi lasterketen mundua asko hazi da azken urteotan, eta bertan bizi den giroak, paisaia ikusgarriek... ni neu ere harrapatu egin naute eta, ahal badut behintzat, horretan jarraitu eta sakontzeko gogoia daukat".

Oraingoan, Instagram-eko @tontorretik atarian ikusi ditzakegu Xabi Agirrek han-hemenka ateratzen dituen argazki ederrak.



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.: 943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Aratz Losada

### Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

### Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

### Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

## Ikurren Tourra

Iñaki Idigoras Igartua, Rafa Santxex Muxika,  
Beñi Agirre eta Iñigo Larramendi

Euskal Herriko zenbait eragilek eta gobernuetako batek egin zuten deialdia, Tourra geurean zela probestuz, munduari hemen Herri bat badela erakusteko. Zer hobe horretarako, geure ikurra erabiltzea baino.

Gogoz batu gatzazkio aldarriari, eta errepide bazterrak bete ditugu ikurrinez, eta Nafarroako banderaz.

Poztu gaitu herritarrak azken hau ere gogoz haizatzen ikusteak. Memoria ariketa sakonagoa adierazten baitu. Eta Herri bat, ezer bada, memoria partekatua da. Eta ikurrak, memoriaren lekuko.

Bi ikur ditugu herri menperatu honetan. Ikurrina, azken mendeko borroka eta askatasun nahiz batasun egarriaren testigu; zatiketa administratiboen gaindi, herriak bere egina. Nafarra berriz, instituzionala, euskaldunok bat eta independente izan ginen mendeetako garaiaren erreferentzia da; makina bat defentsa borroken lekuko, hau ere.

Herri honen misteriorik handiena irautea bada, ez ditugu alferrik galdu hainbeste borroka; baina ez ordea, beraien memoria. Ikurrinan zein bandera nafarrean identifikatzen ditugun memoriak, alegia. Menperatuak izan garenaren memoriari eusten diogun bitartean, irau egingo dugu; batasun eta askatasunaren alde egiteko grinari eutsiko diogu.

Egunotan oihalak astindu dituzuen herritarrei, zorionak. Gure Herri memoria, gure bat izatea, gure burujabetza nahia agendara ekartzeagatik. Iragana ezagutuz, oraina ulertu eta aurrera goaz.

## Tourra Oñatin eta TourLagunak. Esker onez.

Amaia Erostarbe Letamendi

Uztailaren 23an bukatu zen Frantziako Tourra. Aurten, Bilbon hasi da Le Tour, eta lehen hiru etapetan Euskal Herrian ibili da: GRAND DEPART PAYS BASQUE 2023. Euskaldun askok maite dugu txirrindularitza eta Tourra, eta esango nuke 2023. urtekoa oso berezia izan dela gutako askorentzat, Euskadirentzat eta Euskal Herriarentzat.

Tourreko hiru etapa horiei esker, Euskal Herria non dagoen eta nolakoa den ezagutu ahal izan dute atzerrian eta mundu zabalean, bai telebista bidez ikusi ahal izan dituztelako gure parajeak, bai mundu osoko kazetariak adierazi ahal izan dutelako herri honetan euskaldunak bizi garela. Nolakoak garen, eta gure aberria eta nortasuna zein diren ere mintzagai izan dute. Gainera, milaka eta milaka ikurrina ikusi ahal izan dira Bilbon hasi eta Baionaraino. Arrakasta itzela, nire iritzian!

Aparta izan da Tourra gure inguruetan ikustea. Berrogeita hamar boluntario inguru egon ginen bidegurutzek zaintzen Oñatin. Beraz, antolaketan eta kudeaketan burubelarri ibili ziren eragileei, eskerrik asko!; bereziki, A. Atorrasagastiri (Aloña Mendiko Txirrindularitza presidentea) eta haren laguntzaileei. Batzokiko alderdikideok eta hurbilekoak ere TourLagun izan ginen, Zubillaga inguruan: Castaños, Angel Mari, Eva, Oskar, Andoni, Xabier...

Uztailaren 25ean hil zen Kepa Kerejeta, gure alderdikidea. Kepa abertzalea zen eta jeltzailea, eta makina bat lan egindakoa Oñatiko batzokian, gure herriaren alde eta Eus-kadiren alde. Orain bi hilabete egon zen gurekin, Batzokian. Doluminak etxekoei! Baita azken hilabeteetan utzi gaituzten alderdikideak ere: Teofilo García, Jose Mari Biain, Arantxa Vicuña...

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | [www.mekalki.es](http://www.mekalki.es)

## Milagros Madinazkoitia Urzelai

Jerardo Elortza

Urte askuan bizi izan da Milagros gure artian, eta azkenera arte sakon gorde dittu, buruan eta bihotzian, bere etxian, familixan, auzuan eta herrixan izandako pasadizo eta gertaera ugari. Horregatik, eta betik lagunketako agertu dauen jarreriatatik, ezinbesteko makulua eta argibide-itturrixa bihurtu xaku sarritan: II. errepublika eta gerra denporako kontuetatik hasitta, gaur egunerarteko informaziñua samurtu dosku, guk eskatu ahala. Izan be, aparteko memoriñia eukan sasoi desbardiñetako gorabeherak gogoraketako. Eskerrik beruenak, ba, gurekin hain ondo portau dan Milagroseri!

## OHAR ETA DEIALDIAK

### NAGUSIEN DANBORRADA KORRIKORREN EGUNAK

Irailaren 28an egingo den nagusien danborradako entseguak honako egun hauetan izango dira: **IRAILAK 11, 13, 18, 20 eta 26**. Hilaren 26koa **ENTSAIO OROKORRA** izango da. Entsaio denak **Eltzian** izango dira, **20:00etan**. Aurten **118 kintto** irtengo dira dantzan. Danborradaren ordutegi aldaketa mantendu egiten da eta, hala, gaueko **22:30etan** irtengo da Eltziatik.



### ANE GALDOSEN ILUSTRAZIOA JAI-EGITARAUAN

Lau lan aurkeztu ziren udaleko kultura sailak deitutako lehiaketara, eta Ane Galdos Biainenak jaso zuen herritarren boto gehien, 406tik 176 (%43). Horrenbestez, beretzat izango da 500 euroko saria, eta berak izango du etxe guztietara banatuko den jai-egitarauaren azalean bere lana ikusteko ohorea. Diseinu grafiko eta publizitate arloko ikasketak eginak ditu Galdosek eta *freelance* gisa egiten du lan. Herriko jaiei hasiera ematera doan txantxikua ageri da saritutako ilustrazioan. Ustekaberik ez bada, irailaren 18an hasiko dira banatzen jai egitaraua etxe guztietara.



## ARRASTOA UTZIZ

Fernando Mendiguren

Gozatu ederra hartu genuen uztailaren 19an, Bakioko Musika Astearen baitan, gure herriko GANBARA ABESBATZA abesbatza ezin hobek Andre Mari Elizan eskaini zuen kontzertu ederrarekin. Aitor Biainek maisuki zuzendutako abesbatzak —17 emakume eta 16 gizonetako zenbatu nituen— bi atalez osatutako kontzertu gogoangarria eskaini zigun. Lehenengoan, BACH, SCHÜTZ, BYRD, MENDELSSOHN, RHEINBERGER, ELGAR, OSTRUZYGA eta RANDALL STROOPE bezalako konpositore handien zortzi obra abestu zituzten. Bigarren zatian, bertaratutakoek zioten bezala, “KOMENTARIOK GABE, APARTA”, beste lau kanta abestu zituzten gure hizkuntzan: LAU TELATU (A. Cadarioren moldaketa), MAITEGOAK, (X. Sarasola), ALDAPEKO (J. Elberdinen moldaketa) eta KITOLIS (L. Aramburu). Jarraian abestu zituzten, txalorik gabe, zuzendariak berak eskatu bezala, eta, amaieran, imajina dezakezuen moduan, txalo burrunba amaigabea izan zen, entzule guztiak zutik, esku-zarta beroak eskainiz oñatiarrei. Zuzendariak eskertu egin zituen entzuleengandik jasotako maitasun adierazpena, eta lore sorta jaso ostean LAU TEILATU errepikatuz amaitu zen kontzertua.

Ekitaldiaren hasieran, M<sup>a</sup> Carmen Gabika-Aldekoak Garnbara Abesbatzaren aurkezpena egin zuen, elebitan, Oñatiko taldearen historia eta gaur egun arteko ibilbidea azalduz, eta taldeko zuzendariak abestuko zuten egitaraua aurkeztu zuen euskara dotorean.

Lerro hauetatik azpimarratu nahi dut, ‘txantxiku’ en lan



bikainaz gain, emanaldi hauek Euskal Herria bezalako gure herri txiki baina handian bizitzeko dauden modu desberdinak batzeko balio dutela.

Azkenaldian nabaritzen ari naiz TAIFASEKO ERREINUAK bezalakoak garela, bakoitza bere aldetik (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa hegoaldean, eta Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroa Beherea Iparaldean). Gure berezitasunekin bat egiten saiatu behar dugun konglomeratua osatzen dugu. Denak batera. Eta, ildo horretan, GANBARA ABESBATZArena bezalako emanaldiek arrastoa uzten dute, Oñati eta Bakio herriak batu dituzte, eta goian aipatutako nahi edo desira hori lortzen laguntzen dute.

Eskerrik asko Bakio musika asteagatik. Eskerrik asko Oñati zuen izakera bereziagatik, eta eskerrrik asko Ganbara zuen lan bikainagatik. Zorionak Ganbara eta Aurrera beti.



OÑATIKO UDALEKO

**ARAZERIXAN**

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

*Gure ekintzen berri emango duen atala...*

# HAUR ETA GAZTERIAKO UDAL ZERBITZUEN UDA!

Azkenaldiko urte gogorrak atzean utzi eta aurten, eguraldiak gehiegi lagundu ez duen arren, haur eta gaztetxoek disfrutatzeko uda izan da. Gauzak horrela, Udaleku irekiak eta Arte Udalekuak antolatu ditugu, Ludoteka eta Gaztelekuko zerbitzuekin hainbat irteera eraman ditugu aurrera, eta guztiok (haur zein hezitzaileok) topera disfrutatu dugu!! Horren erakusle dira ondorengo argazkiak.

Mila esker urtero eskainitako zerbitzuetan konfiatzen duzuen guztioi! Baita era batera edo bestera parte hartu eta lagundu diguzuenoi ere! Elkarrekin primeran pasatu dugu!!!



# Aizkorri-Aratz natur parkeko BTT bira




**Irailaren 30ean**  
izango da, Araian  
hasi eta amaituta.  
Bi ibilbide  
egongo dira:  
**luzea** (70km) eta  
**motza** (35km)

Araba Bike taldeak antolatuta Aizkorri-Aratz natur parkeko BTT Bira egingo da irailaren 30ean. Tarteka gisa honetako ibilaldi bat antolatu ohi du klub arabarrak; 2017an Gorbeiaiko Itzulia antolatu zuten, 2019an Urkiolako Itzulia, eta aurten Aizkorri-Aratz natur parkeko inguru ederrez gozatzea da helburua.

Bi ibilbide —motza (35km.) eta luzea (70km.)— prestatu dituzte. Araian hasi (09:00) eta amaituko dira biak, eta Urbia, Petrinaitz, Arantzazu, Aloña, Aratz edota San Adriango tunelean barrena ibiltzeko aukera izango dute partaideek.

Aizkorri-Aratz parkeko zuzendaritzak ez du uzten bizikleta elektrikoetan parte hartze eta, beraz, ohiko bizikletan soilik egin ahal izango da. Izen-emateak [kirolprobak.com](http://kirolprobak.com) atarian egin behar dira, **irailaren 10a** baino lehen.



## Ibilbide LUZEA (70km/+2300m) eta MOTZA (35km/+1500m)

Araian abiatuta, Urbia izango da aurreneko jomuga. Handik Arantzazura jaitsi eta Aloñara igo beharko da. Hauxe izango da tarterik gogorrena, 6 km.-tan 500 metro igo beharko baitira. Ondoren 6km.-ko jaitsiera, eta Arantzazuko errepidea gurutzatu ostean eolikoetara igo eta Petrinaitzeko lepotik Urbiara iritsiko dira berriro ere partaideak. Galtzada erromatarrak San Adriango tunelera eramango ditu —onez gurutzatu beharko da—, eta Aratz eta Umandiako magaleko pistak jarraituz Apotako lepora iritsiko dira, Araia aldera jaisteko.



[oñabike.com](http://oñabike.com)

Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK

	Astelehena			Asteartea			Asteazkena					Osteguna			
	Taupada	Arnas	Aldatz	Ziburu	Taupada	Aldatz	Ziburu	Taupada	Arnas	Aldatz	Ziburu	Gerriko	Taupada	Aldatz	Ziburu
7:45								Fit Bike Express							
8:15										Body Pump	Body Tao				
9:15			Pilates Terap.		Hypopresiboak	Pilates				Entro Funtziona 60+	Pilates Terap.	Gimn Terap.			Pilates
10:15			Pilates	Fit bike	Body Pump 60+					Body Balance	Pilates	Gimn Terap.	Fit bike		Kore Stretch
11:15			Senior 60+ gimnasia			Senior 60+ gimnasia									Senior 60+ gimnasia
14:00				Fit Bike Pump									Fit bike Pump		
15:00			Body Balance			Pilates				Hatha Yoga					Pilates
16:45					Hypo Express	TRX Express				B. Pump Gazte		Yoga Gazte		Hypo Express	B. Pump Express
17:15	Fit bike		Body Pump	Krossfit		Body Balance	Pilates	Fit bike		Body Pump	TRX	Hypopresiboak	Fitbike Gazte	Kore Stretch	Pilates
18:15		Gimnasia Egokitua	Body Balance	TRX	Fit bike	Zumba	Pilates		Gimnasia Egokitua	Body Balance	Krossfit	Hatha Yoga	Fit bike	Zumba	Pilates
19:15	Fit bike		Body Pump	Pilates Terap.	Fit bike	Body Pump	TRX	Fit bike		Body Pump	Pilates Terap.	Body Balance	Fit bike	Body Pump	Krossfit
20:15	Fit bike		HIIT	Cardio Kick box		Body Pump	Body Tao	Fit bike			Krossfit	Luzaketak		Hatha Yoga	TRX



## Fitness eskaintza zabala ikasturte berrirako Zubikoa kiroldegian

Urtero bezala, askotariko fitness jarduerak egiteko aukera egongo da Zubikoa kiroldegian 2023/2024 ikasturtean. *Pilates, Fit Bike, Gimnasia, Zumba, Krossfit, Body Pump, Hiit, TRX, Kore Stretch, Hypopresiboak, Hatha Yoga, Kardio Kick Boxing...* hogeit bat jarduera guztira. Goiko taulan ikus daiteke zein egun eta ordutan izango den bakoitza. Tarifen inguruko informazioa [zubikoakiroldegia@onati.eus](mailto:zubikoakiroldegia@onati.eus) webgunean ikus daiteke. **Irailaren 16an** jarriko dira martxan talde berriak, eta **irailaren 8ra** arte dago zabalik izen-ematea. Kiroldegiaren webgunean edo kiroldegiko harreraren bertan eman daiteke izena.



# ZURICH

M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negeruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

## HARALD LINDER

**ETXEETAN ERA GUZTETAKO KONPONKETAK**  
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...






**DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA**  
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

**695 78 91 04 - 943 04 47 77**



# Iraileko hitzordu bereziei begira

» Ganbara Abesbatzak Euskadiko Orkestrarekin abestuko du Donostiako **Zinemaldian**

» Musika Bandak **Sorotan Bele** taldearekin batera joko du herriko jaietan

Ganbara Abesbatzak eta Musika Bandak ikasturte hasiera berezia izango dute, ohiz kanpoko hitzorduekin. Ganbarakoak Euskadiko Orkestrarekin batera arituko dira Donostiako Zinemaldian, pelikula ezberdinen soinu bandei ahotsoa jarritz. Musika Bandak, berriz, berbena giroko kontzertua eskainiko du urriaren 1ean, Errosarixo domekan, *Sorotan Bele* talde mitikoarekin, herriko plazan. Talde bietako zuzendari Aitor Biainekin berba egin dugu ekitaldi berezi hauen inguruan, Italiatik iritsi berritan —Arezzo-ko nazioarteko lehiaketan parte hartu du Hots abesbatzarekin—.

**Nazioarte mailako lehen lehiaketa izan da Hots abesbatzarentzat. Zer moduz joan da?** Oso ondo. Ez gara Sari Nagusirako sailkatu, baina oso pozik gaude egindako lanarekin; ahots zurietan lehenengo sailkatu gara, eta musika profanoko atalean laugarren. Oso emaitza onak dira, eta oso kritika onak jaso ditugu. Esperientzia ederra izan da eta lanean jarraitzeko gogoz itzuli gara.

**Ez da izan udako lehiaketa bakarra. Uztailean**

**Gorizzia-koan (Italia) izan zinen Ganbara Abesbatzarekin. Zergatik lehiaketak? Zeren bila joaten zarete?**

Lehiaketak interesgarriak izaten dira arrazoi ezberdinengatik. Alde batetik, perfekzioaren bila lan egitera behartzen zaituztelako. Ohiko zurrunbilotik atera eta, errepertorio zehatz batean zentratuta, ahalik eta perfekzio maila handiena lortzen saiatzen gara. Horrek exigentzia, autokritika eta konpromiso maila handia eskatzen du. Gogorra izaten da, ahalegin berezia eskatzen duelako, baina taldearentzat oso aberasgarria da, ez daukat zalantzarik, musikalki aurrerapauso handia ematen duelako, eta horixe da, azken batean, gure helburua, egunetik egunera hobeak izaten saiatzea.

**Lehiaketak garrantzitsuak dira, baina irailean dituzuen hitzorduak ere ez dira nolana hikoak. Esate baterako, irailaren 23an Euskadiko Orkestrarekin batera Donostiako Zinemaldian emango duzuen kontzertua. Nolatan?**

Zinemaldiaren baitan Euskadiko Orkestrak



*"Zinemaldiko kontzertua belodromoan izango da. Pantailan pelikula ezberdinetako irudiak ikusten diren bitartean soinu bandak interpretatuko ditugu, Euskadiko orkestrarekin batera"*

**JUANJE MARGOAK**  
627 818 247

 **ARKITEKTURA**

Baserriak \* Teilatuak \* Fatxadak \* Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati \* tel: 677 31 20 57  
amaia@aiarkitektura.com



*"Sorotan Bele taldearekin emango dugun kontzertua berezia izango da. Berbena giroko ikuskizuna izango da beraien abesti ezagunenak entzuteko, kantatzeko eta dantzatzeko aukera egongo da"*

urtero ematen duen kontzertu-proiektzioa da. Belodromoan izaten da eta pelikula ezberdinen soinu bandak interpretatzen dira, pantailan film horietako irudiak ikusten diren bitartean. *Suite* moduko batzuk izaten dira, pelikulen laburpenak. Orkestrarekin batera abesbatza batek parte hartu ohi du emanaldian, eta iaz *Irati* filmaren soinu banda grabatzeko aukera izan genuenez, Euskadiko Orkestrako zuzendariak gonbitea luzatu zigun Zinemaldiko kontzertu berezi honetan parte hartzeko eta, egiari zor, ilusio handia egin digu, sona handiko jaialdia delako, jende askok ikusten duelako, eta *Irati* filma grabatzen asko disfrutatua genuelako.

Urkijoren pelikularenaz gain, beste lau filmen —*Irati*, *Las niñas de cristal*, *Love gets a room*, *Momias* eta *Modelo 77*— soinu bandei jarriko diegu ahotsa, Juan Jose Oconen zuzendaritzapean. Estilo ezberdinetako filmak eta soinu bandak dira, eta esperientzia polita eta interesgarria izango da guretzat. Irailaren 23an izango da (12:00). Sarrera dohainik izaten da, baina gonbidapena eskuratu behar da.

**Aurretik, irailaren 20an, beste emanaldi bat izango duzue Oñatin bertan, 'Faktoria Soziala' proiektuaren baitan.**

Bai, emanaldi xumea izango da. Alzheimer gaitzari aurre egiteko Udalak AFAGI elkartearekin sinatu duen lankidetzaz hitzarmenaren aurkezpena egingo da udaletxean, eta ekitaldiaren amaieran bospasei kanta abestuko ditugu.

**Ganbara Faktoriaren programa sozialaren baitan San Martin egoitzarekin lankidetzan aritzeko asmoa ere baduzue, ezta?**

Hasita gaude. Ekainean Ganbara Kantu Eskolako gaztetxoek abestu zuten San Martin egoitzan, bertako kultur astearen baitan, eta urritik aurrera, jaien ostean, Etxeko Abesbatza proiektua jarriko dugu martxan, San Martin egoitzako egoiliarrekin. Asteaz ordubeteko saio bat izango dute kantuan egiteko, eta nahi duten guztientzat irekia egongo da. Gauza xume bat izango da, jakina; kantuan eginez momentu polit eta atsegin bat pasatzeko aitzakia. Egia esan, halako proiektuek asko betetzen gaituzte; musikaren bidez lagundu badezakegu eta




**ZINEMALDIA**

Donostiako Zinemaldiaren baitan Euskadiko Orkestrarekin batera irailaren 23an belodromoan eskainiko duten kontzertuan 5 pelikuletako soinu bandak interpretatuko dituzte, filmen irudiak pantaila handian proiektatzen diren bitartean.



**SOROTAN BELE**

1990eko hamarkadan Euskal Herriak izan zuen folk-pop talde gogoangarrietakoa izan zen, eta taldekide guztiak (2008an zendu zen Mikel Errazkin izan ezik) egongo dira Oñatin, musika bandarekin emango duten kontzertu berezian.




**COINBROKER**  
OÑATI  
ASEGURU ARTEKARITZA  
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

📍 ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

☎️ 943 089 006    📞 688 774 531 - WHATSAPP

✉️ OINATI@COINBROKER.EUS



arratsalde bat girotzeko aukera baldin badaukagu, gu pozik.

Gero, azaroaren 25ean, First Saturday kontzertua emango dugu 'Faktoria Soziala' ekimenaren baitan. Kontzertu solidario erraldoi bat izango da, gizarte arloan lan egiten duen erakunde edo elkarte baten alde, baina aurrerago emango dugu informazio zehatza.

Errazkin izan ezik— egongo dira oholtzta gainean, eta hori izango da Oñatiko emanaldiaren berezitasuna.

Guretzat erronka polita izaten ari da *Sorotan Bele*-ren kantak ikastea, baina ilusio handiz prestatzen ari gara eta, beraz, animatu egin nahi ditut herritarrek kontzertu berezi honetaz gozatzera.



Uztailean Gorizziako (Italia) nazioarteko lehiaketan parte hartu zuen Ganbara Abesbatzak eta bi 3. sari lortu zituen

**Gatozen Musika Bandaz berba egitera. Izan ere, urriaren 1ean —Errosarixoko domeka— kontzertu berezia emango duzue *Sorotan Bele* taldearekin, 1990eko hamarkadan Euskal Herrian izan zen folk-pop talde gogoangarrietako kideekin batera. Nondik nora?**

Publiko ezberdinengana iristea da musika bandaren helburuetako bat, eta helburu horrekin kontzertu tematiko ezberdinak egin ohi ditugu urtean zehar. Eta herriko jaietan ere zerbait berezia egin nahi genuen, eta ikusirik Xabier Zabala konpositoreak *Sorotan Bele* taldearen abestien moldaketak eginak zituela musika bandarentzat, aukera polita iruditu zitzaigun.

Azken batean, 1990eko hamarkadan Euskal Herrian izan zen folk-pop talderik garrantzitsuenetako bat izan zen *Sorotan Bele* (Hondarribia, 1990-1996). Hiru disko plazaratu zituen eta bere kantuetako asko (*Arratsalde honetan*, *Mariñelaren zai*, *Zortzi orduko ekaitza*, *Sin-Sing-ati-ko folk&rolla*, *Irix nait*, *Jeckill doktoorea* ...) ereserki bilakatu ziren, euskal musikaren memorian betiko geratuz. Beraz, uste dut ikuskizun berezia izango dela, bai guretzat, eta baita herritarrentzat ere, abesti ezagun horietako asko entzuteko, abesteko eta dantzatzeko aukera egongo baita. Berbena edo erromeria erako emanaldia izango da, gaueko 23:00etan, herriko plazan, argiztapenarekin... Berezia eta polita izango da.

Kontzertu hau beste herri batzuetan ere egin izan da 'Sorotan Bele Gogoan' proiektuaren baitan, baina orain arte taldeko bi edo hiru kide bakarrik parte hartu izan dute, eta oraingoan taldekide guztiak —2008an zendu zen Mikel

**Noiz hasiko da musika bandaren kontzertu denboraldia?**

Azaroan. 'Topagunea' izango du izenburua eta, ohi bezala, hilero kontzertu bana eskainiko dugu maiatza bitartean. Gehienak kiroldegiko pilotalekuan izango dira, baina emanaldietako bat frontoitik ateratzeko asmoa dugu, eta beste sorpresa batzuk ere izango dira.

**Bi urte dira musika bandako zuzendaritza hartu zenuela. Zer moduz?**

Oso pozik. Iñaxio Ibarrodok egindako lan handia jaso nuen herentzian, eta bi urte hauetan nire ukitua ematen saiatu naiz. Taldea sendo dago, jende gaztea sartu da, programa anbiziotsuak egin ditugu, publiko berriarengana iristea lortzen ari gara... Oso gustura gaude, lanean jarraitzeko gogotsu eta ilusioz.

**Musika Bandaz gain, Ganbara eta Hots abesbatzak, Ganbara Kantu Eskola, Bergarako Orfeoia, EHU/UPV Abesbatza eta Aequus Ensemble orkestra sinfonikoa zuzentzen dituzu. Gainera, KUP taldean abesteb duzu eta, tarteka, ikastaroak ere ematen dituzu. Nola iristen zara denera?**

Ezin dut ukatu 'peaje' bat ordaintzen dela, lan ordu eta ardura asko direlako, baina oso pertsona planifikatua eta kreatiboa naiz, eta hori da, beharbada, sekretua. Uztailean, lan karga jaisten dela aprobetxatuz, urte guztiko proiektuak ondo planifikatuta uzten ditut.

Bestalde, problemak etxera ez eramaten ere ikasi dut. Egin kontu, bateko eta besteko, ia 500 pertsonekin egoten naizela astero, eta hainbeste jenderekin lan egiteak desgaste handia eragiten du. Baina, bestalde, aipatu dituzun talde horiek guztiak amateurrek dira, ez dira profesionalak, eta hori motore inportantea izaten da zuzendariontzat, taldekideak inplikatu egiten direlako proiektuetan, bidelagun izaten dira eta horrek babes handia ematen digu zuzendariari. Alde horretatik oso eskertuta nago, behar izan dugun babesa jaso izan dudalako nire proiektu 'txoroak' aurrera ateratzeko, bai talde mailan, bai herri mailan eta baita udalaren aldetik ere, eta ilusio handiarekin nago lanean jarraitzeko. ■

 <b>ARRIZABALAGA</b> <b>Aroztegia</b>	 <b>PAKITA</b> <b>Altzariak</b>
Berezo Ind. 10 Tel. 943 78 14 64	Sta. Marina, 6 Tel. 943 78 02 21
SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK	

# Lau irakurle talde eta idazketa lantegia jarriko dira martxan udal liburutegian

» Euskarazko Komikia Tertulixan taldea izango da ikasturte honetako berritasuna

» Irailaren 8tik 23ra zabalduko da izen-ematea

Ikasturte berrian lau TERTULIXAN taldetan parte hartzeko aukera eskainiko du udal liburutegiak. Berritasun moduan, aurten euskarazko Komikia-Tertulixan irakurle taldea eratuko da. Laz, aurreneko aldiz, gaztelaniazko Komiki taldea jarri zen martxan, oso erantzun onarekin, eta ikusirik euskaraz ere gero eta komiki gehiago eta hobeak argitaratzen direla, euskaraz irakurtzen duten komiki zaleei ere beren lekua egitea erabaki dute udal liburutegian. **Igor Leturia** (Arrasate, 1971) izango da dinamizatzailea. Informatikaria eta hizkuntzaren prozesamenduaren arloko aditua da Leturia, baina komikizale amorratua ere bada eta, hala, komikigintzari buruzko Wikilantegiaren sustatzaileetako bat da. Gainerako Tertulixan taldeei dagokienez, azpimarratu **Itziar Ugarte** idazle eta kazetari oñatiarra arduratuko dela euskarazko taldea gidatu eta dinamizatzeaz.

**IZEN-EMATEA.** Irakurle talde hauetakoren batean parte hartu nahi dutenek **irailaren 8tik 23ra** eman behar dute izena, liburutegian bertan, telefonoz (943716111), whatsapppez (688732826), emailaz (liburutegia@onati.eus). **Ohar garrantzitsua:** aurreko urteetako irakurketa klubeko partaideek ere izena eman behar dute. Plaza mugatuak dira (taldeko 20, gehienez).

## UDAL LIBURUTEGIKO TERTULIXAN TALDEAK - 2023/2024

*Tertulixan  
euskaraz*



**Dinamizatzailea:**  
ITZIAR UGARTE

**Egunak:**  
urriak 31, azaroak 28  
urtarrilak 9, otsailak  
6, martxoak 5 eta  
apiriliak 9

**Ordua:** 18:30

*Tertulixan  
gaztelaniaz*



**Dinamizatzailea:**  
MÓNICA LEIVA

**Egunak:**  
urriak 24, azaroak 21  
abenduak 19,  
urtarrilak 23, otsailak  
20 eta martxoak 19

**Ordua:** 18:30

*Komikia  
gaztelera*



**Dinamizatzailea:**  
KIKE INFAME

**Egunak:**  
Urtarrilak 20  
otsailak 27  
martxoak 26

**Ordua:** 18:30

*Komikia  
euskaraz*



**Dinamizatzailea:**  
IGOR LETURIA

**Egunak:**  
urriak 17  
azaroak 14  
abenduak 12

**Ordua:** 18:30

## IDAZKETA LANTEGIA proposamen berriarekin dator

Udal liburutegiak antolatzen duen idazketa lantegia planteamendu berriarekin dator. Orain arte hiru urteko programa izan da, baina hemendik aurrera urte bakarrekoa izango da eta urtero eduki desberdinak landuko dira.

Beraz, egindako bidaiak, entzundako istorioak edo bizi izandako esperientziak txukundu eta paperean jasota ikustea gustatuko balitzaizu, edo irakurtzea gustuko duzu eta literatur testuak sortzen hasi nahiko bazenu, hauxe da aukera. Joxe Mari Iturralde idazleak gidatutako tailer honetan idazten hasteko behar den bultzada, motibazioa eta baliabideak jasoko dituzu, testu laburrak landuz. Informazioa eta izen-ematea udal liburutegian.

*Idazketa  
lantegia*



**Dinamizatzailea:**  
JOXE MARI ITURRALDE

**Egunak:**  
Guztira 10 saio izango  
dira, urritik maiatzera,  
astelehenetan, 18:00etan.  
Datak zehaztu barik daude.

**Ordua:** 18:00

# AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta  
www.onati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



## ANTZERKIA

IRAILAK 3 / 19:00

### 'AGUREA, URPEKARIA ETA ITSASOA'

Hortzmuga taldearen kale-antzerkia, udalaren 'Kalean' egitarauaren baitan.  
Erremerari plazan

## BERTSOAK

IRAILAK 22 / 22:30

### BERTSO SAIOA

Bertsolariak: Oihana Iguaran, Sustrai Colina, Aitor Bizkarra, Urko Arregi, Amaia Agirre eta Unai Iturriaga. Gai-jartzaile: Txinparta Bertso Eskola. Sarrera: 10€ (12 urte artekoak doan). **Kiroldegian**

## IKASTAROAK

### OÑATIKO KZgune-ko IKASTAROAK

'WhatsApp. Bat-bateko mezularitza zure smartphonean'; 'BakQ ziurtagiria'; 'Oinarrizko Internet. Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi'; 'Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi'; 'Zure bidaia planifikatu'; 'Zibersegurtasuna eta pribatutasuna sarean'; 'Erosketa eta ordainkea segurua Interneten'. Informazioa eta izen-ematea [tutor.onati@kzgunea.net](mailto:tutor.onati@kzgunea.net) / 943023672.

## MUS TXAPELKETA

IRAILAK 16 / 16:30

### HERRIKO MUS TXAPELKETA

San Migel jaietako MUS txapelketa. Izen ematea (15:45-16:15) 20€/bikoteko. Sariak: **1.** 800€, txapela eta garaikuarra; **2.** 400€ eta urdaiazpikoa; **3.** 300€, bi gazta eta bi ardo lote; **4.** 100€, bi gazta eta bi ardo lote. **Herriko** aurreneko bikotearentzat 250€ko saria. **San Martingo Amets tabernako plazan**

## Haurren Eguna

IRAILAK 17

Herriko jaien bezperatan, irailaren 17an ospatuko da Oñatiko Haur Dantzarien Eguna, 51a. **Oñatz** taldekoek gain, **Gernika, Arrasate, Legazpi, Tolosa, Lizarra, Antzuola, Beasain, Portugalete, Zarautz** eta **Soraluzeko** 13 taldek parte hartuko dute. Goizeko 10:15etarako iritsiko dira Otadui zuhaitzira, eta pilotalekuan **hamaiketako** jan ostean, alkate txikiak **ongi etorria** egingo die plazan (11:45), eta jarraian kalez kale ibiliko dira dantzan, 13:30ak arte. Bazkalondoan, Etxaluzetik herriko plazara jaitsiko dira kalejiran, eta herriko plazan **alardea** egingo da 17:15etan hasita. **Buruhaundi eta erraldoien** konpartsak borobilduko du jaiak 18:30etan. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian egingo dira goizeko eta arratsaldeko ekitaldiak



## JAIEN ATARIKOAK

### TXIRRINDULARI LASTERKETAK

Irailak 9 / 10:00 (Gazte maila)  
Irailak 16 / 10:00 (Afizionatu maila)

### ATSOLORRA

Irailak 23 / 11:00

### ERRALDOI KONPARTSEN KALEJIRA

Irailak 23 / 12:00

### HAURREN DABORRADA

Irailak 23 / 18:00

### HERRIKO PILOTA TXAPELKETA

Irailak 23 / 17:00

### MARGO LEHIAKETA

Irailak 24 / Goizean zehar

### ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA

Irailak 24 / 10:30

### BOLA-JOKOA

Irailak 24 / 16:00

### ARKU-TIRAKETA

Urriak 1 / 17:00 (San Martinen)



## Zizelkatze ikastaroa irailtik abendura

- Irailaren 13tik abenduaren 13ra
- Asteazkenetan: 14:45-16:45 eta 17:00-19:00
- Irakaslea: Javier Arrieta
- Prezioa: 60€ (bazkideak 50€, langabetuak 40€)
- Izen-ematea: [zizelkatu@gmail.com](mailto:zizelkatu@gmail.com)

## ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

## Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxe: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

## BIDEBARRIETAKO JAIXAK

### IRAILAK 1

**19:00** Txorimaluak, pintxopoteua (Txosnan Italikual-en eskutik eta Sugorri tabernan) **20:30 Beerpong** txapelketa; **22:00** Kontzertuak (*Feline, Txakurra* eta *Ezta ilen*). Ostean: *Arima zaurituak* DJ.

### IRAILAK 2

**11:00** Puzgarriak eta haurrentzako jolasak; **16:00** MUS txapelketa (Sugorri tabernan); **19:00** Txorimaluak; **20:30** DJ Izaskun eta Xabi Sound (Potx eta Lotx). Bafle poteua; **21:00 Beerpong** txapelketa; **22:00** Kontzertuak (*Eire, Etxekalte* eta *XSakara*). Ostean. DJ Basssandere eta DJ T-Rek eta Jolasak.

### IRAILAK 3

**12:00** Oñatz taldeko gaztetxoaren erakustaldia; **14:30** Auzo bazkaria; **18:00** Atsaldepara girotua (Sugorri tabernan); **19:00** Kale-antzerkia. Hortzmuga taldearen eskutik.

## ATZEKO KALEKO JAIXAK

### IRAILAK 8

**17:30** Itxaflero jaurtiketa eta zinta lasterketa; **19:30** Txorimalo eta erraldoien kalejira. Ordu berean, presoen aldeko elkarretaratzea; **20:00** Tortila pintxoak salgai, Hotz-Oñatiren eskutik. Mojitoak edateko aukera txosna ondoan. **22:30** Kontzertuak (Youth United + Etxepe). Jarraian, DJ Pertxas & Sunset

### IRAILAK 9

**13:00** Auzokoen omenezko salda; **14:30** Auzo bazkaria Iturritxon; **19:00** Garagardo dastaketa; **19:30** Txorimalo eta erraldoien kalejira; **20:30** *OstiKda!* elektrotxaranga; **24:00** Piroteknia saioa eta suzko zezena. Jarraian kontzertua: Lizartxo.

### IRAILAK 10

**15:00** MUS txapelketa Iturritxo tabernan; **17:30** Txorimalo eta erraldoien kalejira; **19:00** Gauargi taldearen emanaldia. Tartean zozketa; **21:00** Itxaflero jaurtiketa

## SAN MARTINGO JAIXAK

### IRAILAK 15

**19:00** Martintxo txarrixaren subidoia; **19:03** Pintxopoteua; **19:09** Txorimaluak, Jose de Azpiazu musika eskolako musikarixekin; **22:04** Kontzertuak (Lukiek + Neallta Fola + Larru Beltzak).

### IRAILAK 16

**11:00** Txikitrail (izen-ematea, 10:30); **12:00** Oñatz dantza taldeko haurren erakustaldia; **13:00** Gaztetxoendako encierricoa; **14:30** Auzo bazkaixa; **16:00** MUS txapelketa; **16:00** Ibon magoaren ikuskizuna; **17:00** Gaztetxoendako encierricoa; **18:30** Txorimaluak, Atxabaltako dultzaineruekin; **18:30** Garagardo ferixia; **19:00** Kontzertua (Mentertz + Aiert Alberdi); **21:00** Martintxo txarrixaren bajonazua.

## YOGA HASTAPEN IKASTAROA



Sanatana Dharma Oñatiko Yoga Eskolak antolatuta, **hasiberri** zuzendutako hastapen ikastaroa egingo da irailan.

Hilaren **11tik 14ra eta 18tik 21era** izango da. Zortzi egun, astelehenetik ostegunera. Ordutegi aukera ezberdinak daude: **9:30-11:00 / 17:00-18:30 / 19:00-20:30**.

Izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko: **yogaonati@gmail.com / 610 953 794**.

## FARMAZIA

### ANDUAGA

**San Lorentzo 3** ☎ **943 78 21 16**  
Irailak 4, 6, 8, 9, 10, 12, 14, 20 eta 21.

### IGARTUA

**Kale Zaharra 1** ☎ **943 78 01 22**  
Irailak 22, 23 eta 24. Urriak 1, 2 eta 3.

### GARATE

**Kale Barria 42** ☎ **943 78 05 58**  
Irailak 25, 26, 29 eta 30. Urriak 4 eta 5.

### IULDAIN

**Kale Barria 6** ☎ **943 78 11 28**  
Irailak 1, 2, 3, 5, 7, 11, 13, 15, 16, 17, 18, 19, 27 eta 28. Urriak 6, 7 eta 8.

## MERKATU TXIKIA

**GARAJE ITXIA** salgai San Juan kalean. Deitu: 608 77 10 61.

**GARAJE** bat alokatu edo erosi nahi nuke Portu kafetegitik hurbil. Deitu: 610 466 020

**ETXEKO LANAK** Oñatiko emakumea etxeko lanak egiteko gertu: 645703721

## MERKATU TXIKIA

ataleko iragarkiak dohainik dira.

kontzejupetik@onati.eus

943 78 20 72

## ODOL ATERALDIA

**IRAILAK 15 / 16:30-20:30** MU-ko Enpresagintza fakultatean. Hitzordua hartzeko, deitu: **943007884**

## ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK

LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK



## MODA BEREZIA

Kale Barria, 12  
Tel. Faxe: 943 71 62 40



(\*) Itten: arrastua, pistia

&gt;&gt; Hausnarrian

## Zaintzaillia eta etxeakoandria



Felisa: Hau da hau neska dotoria, guregana etorri dana! Zein da, ba, zure izena?

Jamile: ¿Me pregunta por mi nombre?

F: Bai, bai, hori!

J: Me llamo Jamile y soy de Colombia

F: Jesusss, lekutatik etorri zara!

J: Sí, allí la situación es muy dura y tuve que salir del país para comenzar una nueva vida.

F: Bueno, bueno. Orain hobeto gagoz, baiña hemen be ez pentsau, ezkara betik bizi izan oraingo moduan; gure aurrekuak be Ameriketara fan bihar izan ziran sasue batian.... Eta zu hemen geldiketako asmuarekin etorri zara?

J: ¿Que si me voy a quedar? ¡Pues no lo sé, puede que sí, puede que no! A mí me gustaría volver algún día a mi país.

F: Bai, egixa da hori, aspaldiko esaeria da: 'nere etxe pobria, Burgos dana baiño hobia'. Eta hemen badakozu famelixarik?

J: ¿Me pregunta por mi familia? Están todos en Colombia, yo aquí estoy sola y no conozco a nadie.

F: Hori be ezta, ba, plana! Lagunak egin biharko zittuke!

J: ¿Qué es lagunak?

F: Amigos esan gura dau horrek.

J: ¡Pero si paso todo el día aquí, con usted, y no veo a nadie!

F: Orduan zergatik etzara faten euskaltegira euskera ikastera? Ondo etorriko xatzu!

J: Pero se me dan muy mal las lenguas y me cuesta mucho estudiar. Además, veo que todos ustedes hablan el español y nos entendemos sin problemas.

F: Ba, hemen, gure etxian bizitteko, ondo etorriko xatzu, eta neretako be oso lagungarria izango da!

J: Pero si no me voy a quedar aquí, no veo por qué tengo que hacer ese esfuerzo.

F: Ez ikasteko pegak ifintten hasten bazara, gura dan beste topauko dozu, baiña zuk eztozu hori pentsau bihar. Ikasittakua hor eruango dozu zeurekin, eztotsu iñork kenduko!

J: ¿Y con quién voy a practicar?

F: Gure etxequakin, behintzat, bai!

J: No sé, no sé, pero quizás haga un esfuerzo

F: Hasi, etzara damutuko!

J: Lo apunto en mi agenda

F: Benetan?

J: Benetan! Prometido!


F: Akordau gero: aginddutakua zor!



#NiTokikozale  
#NiTokikozale  
#NiTokikozale  
#NiTokikozale  
#NiTokikozale



Juan Carlos  
Aranburu



Maria  
Chloeren orratza



Asun  
Kuttun



1 "Gaur, osteguna itxita; balio dudalako. Bihar, ostirala, irekita nahi dudalako"



2 "Bainujantzi berdina saldu nien bi pertsonari eta beraiek jakin gabe, batera joan ziren hondartzara"



3 "Alabari esan nion litxarkeriak jateko, lana egin behar dela. Ordutik, jan nahi dituenan, orratzak batzen dizkit lurretik"

Jolastu, lotu eta dendariak ezagutu

Bete itzazu alboko hutsuneak. Erantzun zuzenak, hilean zehar publikatuko ditugu sare sozialetan.

1  2  3



UDARAKO - NEGURAKO  
TERMOERREGULAZIOA



KAPA HIRUKOITZA  
EROSOTASUN OSOA  
BERMATZEKO



LO-LEKU  
BEREIZTUAK



## ETA ZU ZEIN TALDE TAKO A ZARA?



EDO ZEIN TALDE TAKO A ZARELARIK, EMOTION ZURE  
BEHARRETARA MOLDATZEN DA.